

udajolas

2025
udaleku irekiak

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



Udajolas, Usurbilgo 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendutako euskarazko Udalekua da. Astelehenetik ostiralera izaten da, ekainaren 30ean hasi eta uztailaren 30ean amaituko da, 9:30-13:30 ordutegiarekin . Uztailaren 2, 3 eta 4an ez da Udajolasik izango. Ostegunetan irteerak egiten dira eta 16:30ean bukatzen da.

Udajolasen helburua Usurbilgo haurrei zein gazteei euskarazko aisialdi eskaintza egokia (hezitzailea eta baloreetan oinarritua) bermatzea da, gure hizkuntza den euskararen normalizazioa bultzatzeko.

Izena emateko epea: apirilak 03tik, apirilaren 16ra (biak barne)

Izena emateko lotura: <https://labur.eus/vuaxpbwe>

Kuota(*): 120€ arrunta eta 102€ Familia Ugariak.

(*) Horrez gain, errentaren araberako hobariak aplikatuko dira, aurrez udalak onartutako ziurtagiria aurkeztuta. **Hobariak dituztenek ondorengo kuotak ordaindu beharko dituzte:**

Onartutako hobaria	KUOTA arrunta hobariarekin	Familia Ugariaren KUOTA hobariarekin
% 50	60 €	51,0 €
% 75	30 €	25,5 €
% 90	12 €	10,2 €

Ordainketa Laboral Kutxako kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da **UDAJOLAS** eta **HAURREN IZEN -ABIZENAK** adieraztea.

ES28 3035 0140 34 1400025811 (Usurbilgo Udaleko kontua)

Izena ematerakoan bidali (elkartea@noaua.eus helbidera) beharrezko dokumentuak:

- Ordainketa agiria
- Gizarte Segurantzako txartelaren kopia edo argazkia
- Familia Ugarien kasuan, Familia Ugarien txartela edo Familia Liburuaren kopia.
- Hobarien kasuan, udalak aurrez emandako ziurtagiria.

Oharrak:

- Apirilak 16 da izena emateko azken eguna. Epez kanpoko izen-ematerik ez da onartuko.
- Informazio gehiago elkartea@noaua.eus helbidean edo 688807336 telefonoan
- Guraso-bilera, ekainaren 17an (asteartea) izango da Sutegiko auditoriumean, arratsaldeko 17:00etan.

